

UR HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDUKO KONTRATUAREN TITULARTASUN-ALDAKETA ♦

BERAKO Udalaren eta titular gisa ondoren adierazten den pertsona fisiko edo juridikoaren artean gauzatzen da kontratu hau. Ur-horniketa, adierazten den helbiderako eta deklaraturiko erabileretarako da.

Horniketa-lekua ♦

KALEA ♦	HERRIA ♦	TELEFONOA ♦
EGUNGO TITULARRA ♦		NAN / IFK ♦ -
TITULAR BERRIA ♦		NAN / IFK ♦ -

Ordaintzeko modua ♦

BANKETXEA ♦	BULEGOA ♦	KONTUA ♦
-------------	-----------	----------

Horniketa etetea ♦

BERAKo Udalak horniketa eten ahal izango dio harpidedu-nari, zerbitzua jasotzeagatik ordaindu behar dituen diru-kopuruak ordaintzen ez baditu, besteak beste.

Behar bezala onartu, eta harpidetza-polizan eta indarrean dagoen zerbitzuaren araudian jasota daudenak izango dira harpidedunak BERAKo Udalarekin izango dituen harremanak.

Horniketaren ezaugarriak (Kontagailua) ♦

ERABILERA ♦	DIAMETROA ♦	AZKEN IRAKURKETA ♦	EKARRITAKO IRAKURKETA ♦
-------------	-------------	--------------------	-------------------------

Bera, .....(e)ko..... aren ..... (e)an

Berako Udala ♦

Titular berria ♦

Aurreko titularra ♦

## 1. - BERAKO UDALAREN BETEBEHARRAK:

Ondoko betebeharrak izango ditu BERAKO Udalak:

- Urak edateko ona beharko du izan.
- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren instalazioak zaintzea.
- Matxuren berri hartuko dioten sistema bat izango du eskura Harpi-dedunak.
- Osasun-araudia betetzea.
- Zerbitzuak emateari dagokionez edozein etenaldi edo aldaketa Harpidedunei jakinaraztea, ezinbesteko arrazoiak edo premia orokorrak direnean izan ezik.
- Norberaren instalazioek izan beharreko ezaugarriei, horniketa edo hustuketa egiteko aukerari, eta eskatzailea eraginpean hartzen duten tarifa mota edo mote buruzko informazioa ematea.

## 2.- HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK:

Zerbitzua arautzen duen Ordenantzan ezarritako beharrezko betebeharrez gain, eta horiek ez betetzea hirugarren klausulan bilduriko arau-hausteak eragiten dituela kontuan izanda, ondoko betebehar orokorrak izango ditu Harpidedunak:

- Uraren kontsumoa bere premia propioetara mugatzea.
- Edozein matxura edo anomalia Udalarri jakinaraztea, betiere norberaren barruko instalazioan ez bada.
- Ardura-arduraz jokatzeko eraikineko barruko instalazio orokorra erabili, zaindu eta kontserbatzeko dagokienez.
- Udalak eskatzen dizkion datuak zehatz-mehatz ematea.

## 3.- HORNIKETA-KONTRATUA ETETEA ERAGITEN DUTEN JARDUNAK:

Herri Administrazioaren erakunde eskudunaren berariazko agindua edo Udalarri berari alde aurretik eginiko jakinarazpena tarteko eten ahal izango dizkie Udalak ur hornikuntza edota saneamenduko zerbitzuak bere harpidedunei, ondoko kasuetan eta ondoko prozedurari jarraiki:

Iruzurteko likidazio irmoaren ondoriozko diru-kopuruak ez ordaintzeagatik, edo iruzurra errepikatu duela frogatzen bada.

Harpidedunak hornitzen zaion ura kontraturiko polizan ezarrita ez dagoen moduan, edo bestelako erabileretarako, erabiltzen duen kasu guztietan.

Harpidedunak polizak baimendurikoez bestelako isurketak egiten baditu.

Harpidedunak beste lokalei edo etxebizitzetara ura hornitzeko bere instalazioan adarrak ezartzen baditu edo ezartzeko aukera ahalbidetzen badu, betiere haiek bere harpidetza-polizan bilduta ez badaude.

Udalak horretarako baimenduriko langileei, betiere dagokien dokumentazioa dutela eta euren nortasuna frogatuta, harpidedunak horniketa eraginpean hartzen duen lokalean, eta betiere Udalaren bulego-orduetan, sartzen uzten ez badie, haiek instalazioak aztertu edo ur-kontsumoa egiaztatu nahi badute; kasu horretan, ezezko bi lekukoren edo agintaritzaren agente baten aurrean egiaztatu beharko da.

Harpidedunak ekipu zuzentzaileak instalatzeko dagokionez izandako zabarkeria tarteko, sarean arazoak izaten badira, eta betiere erakunde eskudunek horiek zuzentzeko ezarritako epea igarota.

Udalak hori eskatuta, harpidedunak bere instalazioan dagokien matxura konpontzen ez badu, batez ere ihes-kasuetan.

Eta, oro har, harpidedunak ordenantza honetan ezarritako betebeharrak larriki urratzen baditu, edo harpidetza-polizan ezarritako baldintzak kontuan hartzen ez baditu.

Kasu horietan, baita ur-horniketako edota hondakin-uren hustuketako kontratuan bildurikoetan ere, kontratua eteteke espediente irekiko du organo eskudunak ezarritako legezko prozedurari jarraiki. Harpidedunari jakinaraziko zaio hori, eta 10 eguneko epea emango zaio egokituz jotzen dituen alegazioak egiteko.

Behin horiek aztertu ondoren, eta betiere frogaturiko gertaerak desitxuratzen ez badira, kontratuaren etendura ebatziko du organo eskudunak; eskatzaile jakinaraziko zaio, eta ordutik aurrera horniketa eten ahal izango da.

Horniketa mozteko jakinarazpenak harpidedunaren izena eta helbidea, horniketaren mozketaren eragiten duen arrazoa, eta mozketaren eragin zuten arrazoiak haietan konpon daitezkeen Udalaren bulegoaren izena, helbidea, telefonoa eta ordutegia bilduko ditu.

Harpidedunaren kontura izango dira etendurak zein konexio berriak eragindako gastuak.

## 4.- KONTRATUA IRAUNGITZEA:

Arrazoi hauek tarteko iraungiko da kontratu hau:

- Harpidedunak deuseztapena formalki eskatzen badu; horretarako, nahikoa izango da horri buruzko idatzizko jakinarazpena entregatzea Udalaren bulegoetan bajaren data baino gutxienez bost egun lehenago, titularrak berak edo Horretarako legez baimenduriko pertsonak. Horrela ez bada, dagokion batez besteko kontsumoaren bikoitza kobratuko da.
- Iraupen-epeak amaitzen badira, kontratua denbora jakinerako egindakoa izanez gero.
- Harpidedunari egotzi dakizkioken arrazoiak tarteko, zortzi hilabeteko denboraldian neurtzeko ekipoa erregistraturiko datuak ezin izan badira lortu.
- Kontraturiko titularrak hornituriko lokal, finka edo barrutiaren gaineko erabilera-jabaria galtzen badu.
- Ordainketarik ezagatik mozketak bada, betiere mozketak-datatik hiru hilabeteko epean harpidedunak ordaindu gabeko ordainagiriak eta berriz hasteko tasak ordaindu ez baditu, Udalak, dagokion bideak tarteko, zorra eskatzeko eta izan litezkeen kalte-galerak ordainetan hartzeko duen eskubidea aparte utzi gabe.
- Nahitaez betebeharreko xedapen arau-emaileak edo kontratu honetan bilduriko nahitaezko aginduak erabat urrututa Udalak ematen dituen kontratuak eta, hortaz, horniketak, deuseztagarriak izango dira.

## 5.- KONTRATUKO ALDAKETAK (SUBROGAZIOA):

Oro har, pertsonal eta besterenezintzat hartuko dira horniketa edota saneamenduko kontratuak; hortaz, Harpidedunak ezin izango dizkie bere eskubideak hirugarrenei laga, edo Udalaren aurrean bere erantzukizunak alde batera utzi.

Dena den, betiere ur-zerbitzuarekiko betebehar ekonomikoak egunean baditu, eraikin bera kontraturiko baldintza beretan okupatuko duen beste bati eskualdatu ahal izango dio kontratua.

Titulartasun-aldaketa jakinarazi behar dio kontratuaren titularrak Udalarri, jabetza berriak kontratu berria egin dezan; kontsumituriko uraren ordainketa bere gain hartu beharko du eskakizun hori bete artean, eta ezin izango du horniketa edota hustuketa beste finka edo lokal baterako kontratatu, betebehar horiek gauzatzen ez dituen bitartean.

Harpidedun batek hornituriko eraikinaren titulartasuna, edo erabiltzeko edo baliatzeko eskubidea galtzen badu, Indarrean dagoen Ordenantzan xedaturikoa hartuko da kontuan.

## 6.- ERABILTZEKO MODALITATEAK:

Uraren zerbitzua arautzen duen Ordenantzan adierazitako erabileraren baterako emango dira ur-horniketak, ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen dagokion zerga-Ordenantzan ezarritako tarifei jarraiki.

#### AZKEN XEDAPENAK

1. Horniketaren baldintzei eta kontratu honetan zerrendaturiko guztiari buruzko desadostasunak, zalantzak eta interpretazioak planteatu ahal izango ditu kontratuhonen titularrak, eta BERAKO Udalak ebatziko ditu alderdi administratiboari dagokionez. Jakinarazi dizkioten behin betiko egintzen aurkako errekurtsua ere jarri ahal izango du Harpidedunak, Tokiko Administrazioaren arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako prozedurari jarraiki.
2. Uraren zerbitzua arautzen duten Ordenantzak eta indarrean dagoen zerga-Ordenantzak arautuko dituzte zerbitzua ematea, tasak kobratzea eta prezioak. Arloko foru eta Estatu araudia ere aplikatuko da, Estatuaren eta Foru Erkidegoaren eskumenen erregimen orokorrari, eta arau bakoitzaren hierarkia-mailari jarraiki.

#### BALDINTZA BEREZIAK:

.....  
.....  
.....